

DraftMe-k ondo funtzionatzeko, zenbait baliabide nagusi behar ditu. Horiek gabe, plataforma ezin da egoki erabili eta gure balorezko proposamena ez litzateke beteko.

1. Teknologia eta softwarea: webgunea eta aplikazioa funtzionatzeko softwarea ezinbestekoa da. Honek jokalarien profilen kudeaketa, bideoak igo eta estatistikak aztertzea ahalbidetzen du. Gainera, segurtasuna eta erabilgarritasuna bermatzen ditu.
2. Ekipamendu fisikoa: ordenagailuak, mugikorrak eta beste ekipamendu batzuk beharrezkoak dira garapen teknologikorako eta bezeroei laguntzeko.
3. Marka, logo eta domeinua: gure identitatea eta irudi profesionala ematen dute. Erabiltzaileek DraftMe ezagutzen dute eta konfiantza izan dezaten ezinbestekoak dira.
4. Langileak eta talentua: teknologia, marketina eta bezeroarentzako arreta kudeatzeko langileak ezinbestekoak dira. Beraien ezagutza eta lana gabe, plataforma ezin litzateke eraginkorra izan.

Laburbilduz, gure funtsezko baliabideak teknologia, ekipamendu fisikoa, marka eta langile trebeak dira. Horiek guztiek bermatzen dute jokalariei eta klubei balioa eskaintzea eta DraftMe arrakastatsua izatea.